



Munduari bira eman zion ontzia

Joseba Sarrionandia
Irudiak: Ares



Mila gau saila, 13
Urtea: 2022, 168 or.
Koloretako 70 ilustrazio
Formatua: 17 x 24 cm

Azal gogorra:
ISBN: 978-84-9172-285-4
18,00 €

Paper-azala (rustika):
ISBN: 978-84-9172-283-0
14,90 €



Pamiela etxea

Ezkabarte ind., K kalea, 31. 31194 Arre (Nafarroa)
Tel. 948326535 • arre@pamiela.com • www.pamiela.com



«Benetako historia bat» kontatzeko eskatu dio neskato batek bere amonari, benetako historia bat behingoz, ipuin umekioiak kontatzen dizkiolako beti amonak, Historia irakaslea izan arren.

XVI. mendean munduari emandako lehenengobira –Magallaesen eta Elkanoren itsasaldi entzutetsua–

esplikatzeko hasirik, neskatoaren galderek eta bainek aterako dute historia bere ildotik eta bihurtuko dute, antzinako itsas bidaia baten kronika izan zitekeena, benetako beste historia asko azaltzeko aitzakia eta bizi garen planeta arraro honi buruzko gogoeta-dialogoa.

Elkarrizketak, ez umorerik gabe, gai guztietarako giltzak eskainiko ditu: botere harremanak, gorbatak, truke ekonomiko desorekatua, kultur bestelakotasuna, botoi

batzen prezioa, arrazismoa, kosmosaren misterioa, memoria historikoa, lurraren propietatea, eskorbutoa, marxismoa, harrikoa egitearen garrantzia, globalizazioa...

Joseba Sarrionandiaren testua geu denon bizimoduaren baldintza historiko eta sozioekonomikoei buruzko kontakizuna da. Aresen irudiek osatzen dute hamaika urtetik ehun eta hamaika urtera arteko irakurleek goza dezaketenen liburu hau.



Joseba Sarrionandia (Iurreta-Durango, 1958)



Soziologia eta Filologia ikasi zuen. Kartzelan egon zen 1980tik 1985 arte, eta exilioan gero. Habanatik jaioterrira itzuli da 2021ean. Haren obra ugari izenburu aukeratu batzuk: *Narrazioak* (Elkar, 1983); *Ni ez naiz hemengoa* (Pamiela, 1985); *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* (Pamiela, 1985); *Atabala eta euria* (Elkar, 1986); *Marginalia* (Elkar, 1988); *Ez gara geure baitakoak* (Pamiela, 1989); *Ainhoari gutunak* (Elkar, 1990); *Ifar aldeko orduak* (Elkar, 1990); *Hezurrezko xirulak* (Elkar, 1991); *Han izanik hona naiz* (Elkar, 1992); *Gartzelako poemak* (Susa, 1992); *Miopeak, bizikletak eta beste langabetu batzuk* (Erein, 1995); *Hnuy illa nyha majah yahoo* (Elkar, 1995); *Hitzen ondoeza* (Txalaparta, 1997); *Hau da ene ondasun guzira* (Esan Ozenki/Txalaparta, 1999); *Lagun izoztua* (Elkar, 2001); *Kolosa-la izango da* (Txalaparta, 2003); *Akordatzen* (Txalaparta, 2004); *Munduko zazpi herrialdeetako ipuinak* (Pamiela, 2008); *Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako* (Hik Hasi, 2010); *Moroak gara behelaino artean?* (Pamiela, 2010); *Lapur banden etika ala politika?* (Pamiela, 2015); *Hilda dago poesia? / ¿La poesía está muerta?* (Pamiela, 2016); *Bizitzea ez al da oso arriskutsua?* (Pamiela, 2018); *Airea ez da debalde* (Pamiela, 2019); *Gauzak direna balira* (Pamiela, 2020).

Ares (Habana, 1963)



Aristides Esteban Hernández, mediku psikiatra ikasketaz, eta marrazkilaria autodidakta ogibidez. 1984an bere lehenengo karikatura argiratu zuenetik, marrazki eta pintura lan asko egin ditu. 1994an, *Witty World* aldizkari munduko umorista grafiko hoberearen sailerako aukeratu zuen. Jaioterrian bezala, Brasilen, Italian, Iranen eta bost kontinenteetan egin ditu kartel edo koadro erakusketak. Ehunen bat liburu ilustratu ditu, eta hogeiren bat berak idatzi. Marrazki bizidunak ere egin ditu, «filmintuak», Kuban deitzen direnez. Ehunetik gora sari jaso ditu, hala nola itzal handiko *World Press Cartoon* saria 2012an eta Nazio Batuek ematen duten *Ranan Lurie* saria 2016an. www.reshumour.com

